

DATU PERTSONALEN BABESA ELKARTEEN ESPARRUAN

bolunta

boluntariotza eta gizarte-partaidetza
voluntariado y participación social

Bizkaia
Euzko Legebiltzarra

edeFundazioa

bbk

DATU PERTSONALEN BABESA ELKARTEEN ESPARRUAN

1. Zer da datuen babesa eta nola eragiten dio elkarte bati?

- Datu pertsonalak identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei dagokien edozein informazio dira, esate baterako, izena, IFZ, posta elektronikoa, argazkia, etab.
- Legez, mundu guztia dago behartuta bizirik dauden pertsona fisikoen datuen erabilera eta artxibatzea **babestera, betiere, ez badira soil-soilik etxeko erabilerarako**, adibidez: nire haurraren argazkiak bere lagunekin eskolaz kanpoko jardueretan ari dela, ez ditudanak familiatik kanpoko inorekin partekatuko, eta, noski, inolaz ere ez sare sozialetan.
- Elkarteok gugana datozen pertsonen datu pertsonalak bildu eta artxibatzeko **ditugu**: kide diren pertsonenak, langileenak, boluntarioenak, kolaboratzaileenak, hartzailleenak, etab. **Eta hainbat helburutarako erabiltzen ditugu**: jardueretan parte hartzeko, komunikazioak igortzeko, etab.
- Legearen arabera, jasotzen ditugun datu pertsonal batzuk beste batzuk baino sentiberagoak dira, eta, ondorioz, **segurtasun handiagoarekin babestu behar ditugu**, esate baterako, osasunari, erlijioari, arrazari edota sexu orientazioari dagozkion datuak.

2. Zein legek arautzen dute datuen babesa?

a. 1978ko Espainiako Konstituzioa. (*Indarrean*)

Oinarrizko eskubide gisa jasotzen du herritarren ohorearen eta intimitate pertsonalaren zein familiakoaren babesa. (18.1.art)

b. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa. (LOPD) (*2016ko maiatzaren 25etik, soilik Europako 2016/679 Erregelamenduaren aurka ez doanean*)

Datuak obligazio eta eskubide zehatzekin babesteko neurriak ezartzen zituen argi eta garbi: nola informatu, moldatu, ezeztatu, etab. Eragiten zion pertsonaren bi oniritzi mota jasotzen zituen: tazitua eta espresuki adierazitakoa. BETEKIZUN PASIBOAN oinarritua.

c. LOPDren garapenerako araudia (1720/2007 Errege Dekretua) (*2016ko maiatzaren 25etik, soilik Europako 2016/679 Erregelamenduaren aurka ez doanean*)

Datuak babesteko beharrezkoak diren segurtasun neurri guztiak eta horretarako prozedura zehazten zituen.

d. Europar Batasuneko Datuen Babeserako 2016/679 Erregelamendu Orokorra (*2016ko maiatzaren 25etik indarrean, eta derrigorrezkoa 2018ko maiatzaren 25az geroztik*)

Europar Batasuneko estatu guztietan dago indarrean, eta Europar Batasunaren barruan datu pertsonalak erabili edo Europar Batasunaren barruan dagoen edonori eragiten dio. Kide diren estatuetak lege nazionalen gainetik dago, haiek ez badaude erregelamendura egokituta.

Aurreko araudiarekiko aldaketa esanguratsuak dakartza: oniritziak espresuki adierazitakoa izan behar du, eta ez tazitua; segurtasun neurriak antolakunde bakoitzaren arabera izango dira, haren arrisku eta eraginaren ebaluazioaren arabera. ARDURA PROAKTIBO batean oinarritua.

e. Datuen Babeserako Lege Organikorako proiektua (10/11/2018) (*onartzeke*)

2016ko RGPDak dioenera egokitutako datuen babeserako arauak ezarriko ditu. Adingabeen oniritziaren muga 13 urtean egongo da; gaur egungoa 14an dago.

3. Zeintzuk dira datuen babeserako ideia nagusiak?

- Oniritzia

Oniritziak bi baldintza bete behar ditu: **zalantzarik gabea** izatea (ezin du isilpekoa edota alde aurretik markatutako gelaxken bidez lortutakoa izan) eta **helburu zehatzetarako** (hainbat helburu badaude, hainbat baimen eman beharko dira). Oniritzia jaso ahal izateko, alde aurretik informatu

behar da pertsona, izan ere, baimenak **informatutako oniritzia** izan behar du (informazioa behar bezala jaso ez duen norbaiten sinadura biltzea hura ez ematea bezala litzateke).

Egoera batzuetan ez da beharrezkoa oniritzia jasotzea: hitzarmenezko harremana, legezko obligaziozkoa, interes publikokoa, bizi interesekoa edota interes legitimokoa dagoenean (adb. elkarte guztiek erabil ditzakete euren kideen datuak elkartearen jardueretarako, oniritzia eskatu behar izan gabe).

14 urtetik beherakoen kasuan, haren guraso edo tutoreen oniritzia jaso behar da.

- Erabileraren erantzulea

Datuen trataeraren helburu, eduki eta erabileraz erabakitzen duena da, hura materialki ez gauzatu arren. Esate baterako, gure erakundeak bertako kide diren pertsonen datuen trataera guztien erantzukizuna izango luke, trataera hura elkartetik eginda zein kanpoko norbaiti egiteko eskatuta.

- Erabileraren arduraduna

Datuak enkarguz tratatzen dituen hura da erabileraren arduraduna. Esate baterako: gure elkarteak posta bidezko bidalketen enpresa bati eskatzen badio kide guztien helbideetara elkartearen aldizkariaren ale bana igortzeko, datu horiek eman beharko dizkio, eta datu horiek tratatuko dituen bidalketa egingo duen enpresa da.

- Datuen babeserako ordezkaria

Europako Erregelamenduak sortu duen **figura berria da**; hark ezarri ditu haren funtzioak, soslai profesionala, erakundeko posizioa... **Nagusiki gainbegiratzear** arduratzen den figura da. Informazioa ematerakoan, figura honen harremanetarako datuak zehaztu behar dira.

- Segurtasun neurriak

Datuak egoki babesteko gauzatu behar diren ekintza guztiak dira. Zehatzagoak dira babes bereziko datuetan (osasuna, erlijioa, arraza...). Esate baterako: boluntarioen datuak biltzen dituzten orriak karpitetan jasota ote dauzkagun giltzapeko eta sarbide mugatuko armairu batean, edota nolabaiteko pasahitza edota zifratze-sistemaren bat erabiliko ote dugun elkartearen ordenagailuaren barruan datuak dauzkaten artxiboetan.

4. Zertara behartuta gaude elkarteok datuen babeserako legeen arabera?

Ardura Proaktiboa = helburua ez da soilik **legea betetzea**; frogatu ere egin behar da. **Honako neurriak hartzera behartuta gaude:**

- Informatzea

Zein datu nahi ditugun / dauzkagun esatera behartuta gaude, zertarako erabiliko ditugun, zenbat denboraz, nori utziko dizkiogun (halakorik balego), eta jabeek nora jo dezaketen haiek moldatu eta ezeztatze (Trataeraren Arduradunari eta Datuen Babeserako Ordezkaritari buruzko datuek agertu beharko dute). Ez dute balio oniritzi tazituak edota alde zurretik markatutako gelaxkek.

Gainera, ematen dugun informazioak zehatza, gardena, ulergarria eta sarbide errazekoa izan behar du, eta hizkera argi eta errazean azalduta egon behar du.

Informazioa GERUZAKA edo mailaka eskaini behar da: lehenbizi, oinarrizko eta laburtutako informazioa, informazio xeheagoko bigarren maila batera igarotzeko aukera ematen duena. On-line formulario batean, adibidez, lehenbiziko geruza batean ematen da datuen erabileraren helburuaren berri, eta PDF dokumentu baterako esteka eskaintzen da; bertan, askoz xeheago azaltzen dira datuen trataeraren helburuak, haiek gordetzeko epeak/irizpideak, etab.

Datuen Babeserako Agentziaren agiri honetan hainbat aholku eskaintzen dira informatzeko obligazioa betetzeko moduari buruz: [Informatzeko obligazioa betetzeko modua \(erderaz\)](#)

- Datuak erabiltzeko zilegitasuna:

Erakundeok soil-soilik erabil ditzakegu datuak horretarako zilegitasuna baldin badaukagu. Nola eduki dezakegu hura? Honako baldintzetako bat betetzen bada:

- **Oniritzi informatua** (datuak pertsonak berak informazioa jaso ostean espresuki adierazi duen oniritziarekin bildu ditugunean). *Ikus dokumentu honen 3.1 atala.*
- **Hitzarmenezko harremana** (datuak ahozko zein idatzizko hitzarmen bat dagoelako eman direnean, eta haiek erabiltzeko eskumena daukagunean; esate baterako, besteren konturako langile gisa kontratatzen bazaituzte, zure bankuko datuak erabili behar dituzte soldata ordaintzeko; kreditu txartel batekin ordainketa bat eginez gero, zure datuetarako sarbidea izan dezaketela onartzen duzun hitzarmen bat egiten ari zara, etab.)
- **Pertsona interesdunaren edo besteren bizitzarako interesak** (norbaitek premiazko osasun laguntza behar badu, haren datuak erabil daitezke hark oniritzirik eman ez badu ere).

- **Erantzulearen legezko obligazioa** (datu horien bilketa derrigortzen duen legeren bat existitzen bada, esate baterako, enpresak Gizarte Segurantzaren esku ipini behar baditu bere langileen datuak)
- **Interes publikoa edota botere publikoen jarduera** (adibidez, udal zerbitzu baten —liburutegi, kiroldegi eta abarren— kudeaketarako erabiltzaileen datuak erabili behar badira).
- **Erantzulearen edo hirugarren baten interes legitimoak** (ustelkeria politikoko gaietan, adibidez, hedabideen informazio askatasunerako eskubidea gailen dakioko datuen babeserako eskubideari. Zein interes nagusitzen den baloratu behar da).

- **Interesdunaren eskubideak gauzatzen direla bermatzea**

Erakundeok pertsona interesdunek euren eskubideak gauza ditzaketela bermatu behar dugu (nahiz eta, batzuetan, baldintza zehatz batzuk bete behar diren horretarako). Eskubideok honakoak dira:

- **Informaziorako eskubidea:** eskubidea dute jakiteko zein datu, zein helbururekin eta zenbat denboraz erabiliko diren, eta nork dauzkan.
- **Sarbiderako eskubidea:** euren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko eskubidea dute.
- **Zuzenketarako eskubidea:** euren datuak moldatzeko eskubidea dute, haiek osatu gabe badaude edo ez badira zehatzak.
- **Ezeztatenerako eskubidea (Ahanzturarako eskubidea):** eskubidea dute euren datuak ezaba daitezen eskatzeko. Kasu batzuetan, ez da posible haiek erabat ezabatzea (adibidez, datuak gordetzeko legezko obligazioa badago), baina blokeatu egin daiteke haietarako sarbidea.
- **Oposiziorako eskubidea:** euren datuen erabileraren aurka agertzeko eskubidea dute. Esate baterako, esateko ez dutela nahi euren argazkia edota datuak elkartearen webgunean agertzerik.
- **Erabilera Mugatzeko eskubidea:** eskubidea dute datuen erabilera mugatzeko eskatzeko, hau da, adierazteko ez dutela nahi euren datuak gauza jakinetarako erabil daitezen.
- **Eramangarritasunerako eskubidea:** euren datuen eramangarritasunerako eskubidea dute. Esate baterako, telefono-konpainia aldatzen dugunean, eskubidea dugu zenbakia gurekin eramateko eta hura beste konpainiara igarotzeko.

[Pertsona interesdunen eskubideen irudi grafikoa \(erderaz\)](#)

- Konfidentziasunerako betebeharra

Erakundeok behartuta gaude **datuen konfidentziasuna** zaintzera, eta betebeharrak **datuak erabiltzen dituen edonori** eragiten dio: erantzule, arduradun, boluntario, ordainpeko langile... baita erabiltzaileei ere, beste erabiltzaileei dagokienez.

- Erantzulearen eta arduradunaren arteko hitzarmena

Oso garrantzitsua da datu pertsonalak **erabiltzerakoan jakitea zein den gure rola**, euren erabileraren **erantzuleak** garen (eta, ondorioz, **zertarako erabiltzen diren** erabakitzen dugun) edota erabileraren arduradunak ote garen (ez dugu erabakitzen, baizik eta **erabakitzen duenaren enkarguak gauzatzen ditugu**). Adibidez: enpresa bati datuak uzten badizkiogu hark gutunak igor ditzan, geu gara erantzuleak, eta enpresa, arduraduna; baina udal batek guk kudeatuko ditugun udaleku batzuetan izena emandako haurren datuak uzten badizkigu, gu izango gara **arduradunak** eta udala, erantzulea.

Norbaiti datuen erabilera enkargatzen zaionean, **legez behartuta gaude bi aldeen arteko hitzarmen edo itun bat sinatzera** (erantzulearen eta arduradunaren artean); bertan, araudiak zehaztutako puntuak jaso behar dira.

Horrez gain, **erantzulearen betebeharra** da datuen babeserako araudia **betetzeko aski berme ematen dizkion arduraduna aukeratzea**.

Esteka honen bidez, datuen erabileraren erantzulearen eta arduradunaren arteko hitzarmenak egiteko jarraibideen gida batera irits daiteke:

[Hitzarmenak egiteko jarraibideen gida \(erderaz\)](#)

- Ardura proaktiboko neurri berriak

Araudi berriak hartzera behartzen gaituen neurriak dira: datuen babesa betetzeaz gain, hura frogatu ere egin behar dela dioen filosofian oinarrituta daude. Hartu beharreko neurriak **honakoak** dira:

- **Erabilera jardueren erregistroa:** dagoeneko ez da beharrezkoa Datuen Babeserako Agentziari erakundearen fitxategien berri ematea; nolahi ere, derrigorrezkoa da *jardueren barneko erregistro eguneratua* izatea, eta, bertan, erakunde batek datuei ematen dizkien erabilerak adieraztea, babes bereziko datuei dagokienean (osasuna, erlijioa, etab.).
- **Datuen Babeserako Ordezkarria:** administrazio publiko guztietan eta erakunde eta enpresa pribatu askotan derrigorrezkoa den figura bat da. Entitatearen barruan datuen babesa betetzen dela bermatzen du.
- **Segurtasunaren kudeaketa:** aurreko araudiak datu pertsonalen izaearen arabeko segurtasun neurriak eskatzen zituen; araudi berriak,

ordea, datuon ebaluazioan identifikatutako arriskuetera egokitutako segurtasun neurriak eskatzen ditu. Datuak erabiltzeko teknikaren egoera, kostuak eta helburuak ere hartuko dira aintzat.

- **Pribatutasuna, diseinutik eta berez:** datu pertsonalak babesteko antolaketako eta teknikako neurri egokienak hartzeko helburuz, pribatutasuna beti hartuko da aintzat. Esate baterako, datu jakin batzuk erabat beharrezkoak ez ote diren baloratuz, eta horren arabera ez eskatuz.
- **Pribatutasunaren gaineko eraginaren ebaluazioak:** kasu batzuetan, beharrezkoa izango da alde zuzeneko eragin-ebaluazioak egitea pribatutasunari dagokionez, arrisku posibleak saihestu edo haiek gutxitzeko behar diren neurriak martxan jartzeko.
- **Segurtasuna hausten denean jakinaraztea:** segurtasunean arrakala bat sortzen denean, berandutu gabe jakinarazi behar zaio Datuen Babeserako Agentziari (gehienez ere, jakin eta 72 ordura), eta, kasu oso larrietan, baita eragindako pertsonen ere.
- **Jokaera kodeak eta ziurtapenak:** erakunde jakin batzuen edo euren taldeen aldetik datuen babesari buruzko jokabide kodeen existentzia bultzatuko da; haien bidez, printzipio sorta bat betetzeko konpromisoa hartuko dute. Era berean, ziurtapenak sustatuko dira jokaera-kode bati lotzeak dakartzan obligazioak betetzen direla egiaztatzeko bide gisa.

5. Nora jo dezaket datuen babesari buruzko zalantzak argitzeko?

[Datuen Babeserako Espainiako Agentzia](#) da pertsona fisiko edota entitate juridiko pribatuekin zerikusia duen kontsulta ororen erantzule. Datuen Babeserako lurraldekako agentziek, esate baterako, [Datuak Babesteko Euskal Bulegoak](#), gai honi euren lurraldeko erakunde publikoetan dagokion ardura dute.

Horrenbestez, irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateok, edozein kontsulta egiteko, Datuen Babeserako Espainiako Agentziara jo beharko dugu. Adingabeei datuen babesean laguntzeko prestatutako webgune bat ere badago: [Adingabeen datu babesa](#)

boluntako aholkularitza zerbitzutik (asesoria@bolunta.org), gai honi buruzko gai guztietan oinarritako jarraibideak eskaintzen dizkiegu elkartei. Agentziaren prestakuntzako eskaintzatik ere urtero, EDE Taldeko datuen babeserako arduraduna den Naiara Soutok emandako ikastaro bat eskaintzen da gai honi buruz. [Bideo tutoriala \(erderaz\)](#)